

opusdei.org

Tecnun: ikastaro berria

Ibaetako campusean izan da ekitaldia

2020 Ira 24

Tecnunek 2020-21 Graduondoko Ikasturte Akademikoaren irekiera-ekitaldia egin du gaur, eta ongietorria eman die 130 ikasle baino gehiagori. Ikasle horiek Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolak Donostian eta Madrilen eskaintzen dituen masterretako bat egingo dute. Gainera, bigarren urtez Masterra

Madrilgo Campusean ere emango da. Halaber, 80 ingeniari baina gehiagok Tecnun-eko doktoretza-programekin jarraituko dute.

Ekitaldia gaur goizean egin da Ibaetako campuseko Ekitaldi Aretoan eta Nafarroako Unibertsitateko Irakasleen errektoreordea, María Iraburu, izan da buru. Bertan izan dira, halaber, Miren Artazar Unibertsitateko Politika eta Koordinazioko zuzendaria, Jon Gurrutxaga Foru Aldundiko Berrikuntzako zuzendaria eta Guillermo Echenique Gobernuko ordezkariordea.

EHUko, Deustuko, Arrasateko eta UHUNeko unibertsitateetako agintari akademikoek, irakasleek eta graduatu ondoko ikasleek ere parte hartu dute. Halaber, Madrilgo campusean Industria Ingeniaritzako Masterreko ikasleei ongi etorria egin zaie.

Raúl Antón Eskolako zuzendariak joan den ikasturteko gertakizun garrantzitsuenen laburpena aurkeztu du, irakaskuntzaren, ikerketaren, nazioartekotzearen eta ekintzailatzaren arloetan. Aurreko ikasturtean egindako 64 ikerketa-proiektuak ere nabarmendu dira; horietako batzuk, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Ikerbasqueren eta Ministerioaren deialdietan.

Ekitaldian, halaber, Donostiako Udalarekin lankidetzan aritu da hainbat programatan, eta Tecnun-ek parte hartu du Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako unibertsitate-prestakuntzako 4. Klusterrean, Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Unibertsitateko komunitateak Tecnungo Tantaka programa gizarte-jardueretan parte hartzea ere aipatu

da; iazko ikasturtean 160
boluntarioren laguntza izan zuen.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/tecnun-ikastaro-berria/](https://opusdei.org/eu-es/article/tecnun-ikastaro-berria/)
(2026 Mar 10)